

B.7. DIMA

B.7.1. **Axlor**

VII.-VIII. kanpaina
Zuzendaritza: Jesús González Urquijo
Diru-laguntza emailea: Bizkaiko Foru
Aldundia; Harpea Kultur Elkarte

The excavation of Axlor provided most of the documentation used in a research project designed to shed light on the lifestyle of late Neanderthals. In general terms, the preliminary results of the project reveal the complexity of these early humans and help chart the dynamics of social change that mark the history of these populations. These results contribute to current debates, which attempt to construct models of understanding for various different phenomena which accompanied the extinction of the Neanderthal populations and the appearance of Homo Sapiens.

Azarnategi honetan ondoz ondo etorritako indusketa kanpainak helburu arkeologikoen multzo bat betetzeko xedean bideratuak izan dira. Helburu garrantzitsuena eta lehenena da Erdi Paleolito Aroaren amaierako sekuentzia zehaztea eta aldi honetan gertatutako aldaketak aztertze beharrezkoa den dokumentazioa biltzea. Honako hauek izan dira azken kanpaina bietan bila izan ditugun beste helburuak:

- harpearen barruko aldeko sekuentziaren lodiera estratigrafikoa ezagutzeko.
- I. eta II. mailetan geroagoko –Goi Paleolito Aroa– okupazioaren arrastorik ba ote zen argitzea, J.M. Barandiaranek bururatutako indusketen emaitzen arabera antzua baitziren maila horiek biak.

Helburu horiek betetze aldera induskatzeko hiru eremu ireki genituen.

Handienak I9-I11 laukiak hartzen ditu, eta N mailaren indusketara mugatu zen. Kanpoko aldera hurbilen dagoen eremuko sekuentzia emankorraren muga osatzen du N mailak.

F8-F9 laukietan 2 x 0,5 metroko gune bat altxa genuen Barandiaranen indusketan erabilitako hizkien arabera II. mailaren hondoa eta II. mailaren goiko parte induskatzeko xedean.

Hirugarren gunea K14-K15 laukietan altxa genuen sekuentzia zaharreko zundaketaren ebakian azalera-tzen zen eta behera etortzeko arriskuan zegoen harri handi bat ateratzeko xede praktikoarekin. Alde honetan bururatutako indusketa harpearen barruko goiko mailetakoa estratigrafia aztertzeko aprobetxatu genuen.

Indusketa kanpaina uztailearen azkeneko astean eta abuztuaren lehenengo hiru asteetan bururatu genuen. Abenduaren hondarretan azarnategira joan behar izan genuen berriro ere abuztuko uholdearen era-

B.7.1. **Axlor**

VII-VIII Campaña
Dirección: Jesús González Urquijo
Subvención: Diputación Foral de Bizkaia;
Harpea Kultur Elkarte

En el yacimiento, las campañas sucesivas de excavación se han orientando hacia un conjunto combinado de objetivos arqueológicos. El más importante e inmediato de ellos es establecer con claridad la secuencia estratigráfica del final del Paleolítico Medio y obtener la documentación precisa para abordar el estudio de los cambios en este periodo. Otros objetivos abordados en las dos últimas campañas han sido:

- El reconocimiento de la potencia estratigráfica de la secuencia antigua depositada en el interior de la cavidad.
- La exploración de la existencia de restos de ocupaciones más recientes –del Paleolítico Superior– en los niveles I y II, previamente considerados estériles a partir de los resultados de las excavaciones de J.M. de Barandiarán.

Con estos objetivos se han abierto tres zonas de excavación.

La más amplia se sitúa en los cuadros I9-I11 y se centra en la excavación del nivel N, que constituye el muro de la secuencia fértil de la zona más exterior.

Otra zona, de apenas 2 x 0,5 m, se ha abierto en los cuadros F8-F9 para excavar la base del nivel I y la parte superior del nivel II según la nomenclatura de la excavación Barandiarán.

La tercera zona se ha abierto en K14-K15 con el objetivo práctico de retirar una gran roca que afloraba en el corte del sondeo de la secuencia antigua y que amenazaba con desplomarse. La excavación en esta zona se ha aprovechado para estudiar la estratigrafía de los niveles superiores hacia el interior de la cavidad.

La campaña de excavación se llevó a cabo la última semana de julio y las tres primeras de agosto. Fue necesario acudir de nuevo al yacimiento en los últimos días de diciembre para recuperar los sedimentos

ginez F zerrendako ebakian eroritako sedimentuak berreskuratzeke.

Jarraipena eman diegu harpearen ingurukoak ezagutarazteko xedean 2003. urtean abiarazitako lanei.

Ikerketa proiektuaren helburuak

Axlor harpeko aztarnategiaren indusketari leku egiten dion ikerketa proiektuak Erdi Paleolito Aroaren eta Goi Paleolito Aroaren arteko trantsizio aldi gertatutako aldaketak interpretatzea du xede. Aldaketa hauek antropologikoak –neandertalen desagertzea eta homo sapiens agerraldia– eta kultura izaerakoak –azken neandertalek berezko bide zituzten bizimodu eta portaera moderno deitzen arteko aldaketak– dira. Hasiako proiektua diseinatzeko unean zalantza ugari zeuden denboran bat etortze horren inguruan, eta beraz, aldaketa antropologiko eta kulturalaren fenomeno bi hauek eragin zituzten arrazoi arteko loturaren inguruan. Azken hamarraldian bururatutako azterketen emaitzek –horien artean aipagarri dira Axloroko materialen azterketatik lortutakoak– are garbiago erakutsi dituzte trantsizioa azaltzeko eredu kontraesanak; eredu horien arabera funtsean besteekin harremanetan zeuden giza espezieen eta berez isolaturik bizi ziren neandertalen artean zeuden gaitasunen aldeak azaltzen du trantsizioa. Axlorren bururatutako aurreneko azterketek egindako ekarpen garrantzitsuenetako bi horietan dira, bigarrena batez ere: gizarte neandertalak gizarte guztiz historikoak dira, gure garaiko *sapiens* taldeetan hautematen diren aldaketa eta harreman mota berdinen agerpenak.

Trantsizioari begira orokorrean ematen ziren azalpenen oinarria kolokan uzten ari da egitate hori. Hasteko, azalpenak emateko beste aldagai batzuk eskaini behar dira. Aldagai berri hauen artean guk uste dugu garrantzi handia izango dutela, ingurumen eta biologia izaerako edo etologia izaerako arrazoi ez baizik eta gizarte aldatzeko ohiko tentsioekin zerikusia duten alderdiek. Oinarri eboluzionista edo neo-eboluzionista duten azalpen hauek paleoantropologia fisikoaren diziplinatik inportatuak dira, baina ziur asko ez dira oso erabilgarriak izango historian emandako aldaketa hauen konplexutasuna agerian uzteko.

Eredu hauen krisiaren bigarren ondorioa da beste kontu historiografiko bati ateak zabaldu zaizkiola, Erdi Paleolito Aroaren amaierako historiaren nondik norakoak ulertzeko ateak ireki direla: bada historia Erdi Paleolito Aroan, eta historia hori oso garrantzitsua da 40.000ko trantsizioan gertatu ziren aldaketak ulertzeko.

Gogoeta hauek egin ondoren, proiektuaren helburu nagusia eta lehenena Erdi Paleolito Aroaren hondarreko sekuentzia (egungo indusketen arabera Btik Nra bitarteko mailak, Barandiaranen indusketen arabera III. mailatik VIII. mailaraino bitartekoak) aztertzea da. Aurreneko erreferentzien arabera, beheko mailek okupazio biziari egiten diote leku, eta haie tan goiko mailetan ez bezalako portaera hautematen

caidos en el corte de la banda F por las inundaciones del mes de agosto.

Se ha continuado con las labores de difusión iniciadas en 2003.

Los objetivos del proyecto de investigación

El proyecto de investigación general en el que participa la excavación del yacimiento de Axlor está orientado a la interpretación de los cambios que se producen en la transición entre el Paleolítico Medio y el Paleolítico Superior. Estos cambios son antropológicos –extinción de los neandertales y aparición de homo sapiens– y culturales –entre las formas de vida que se consideran características de los últimos neandertales y la extensión de los llamados comportamientos modernos. En el momento del diseño del proyecto inicial ya existían serias dudas sobre la coincidencia temporal y, por tanto, sobre la vinculación causal de estos dos fenómenos de cambio, el antropológico y el cultural. Los resultados de los estudios de la última década –entre ellos los que proceden del estudio de materiales de Axlor– han mostrado aún más claramente las contradicciones de los modelos que explicaban la transición básicamente a partir de las diferencias en las capacidades de las especies humanas en contacto y del carácter estático innato de los grupos neandertales. Dos de los principales aportes de los primeros estudios de Axlor han sido probablemente éstos, sobre todo en relación con el segundo: la constatación de que las sociedades neandertales son sociedades plenamente históricas, agentes de los mismos tipos de cambios y relaciones que se aprecian en los grupos de *sapiens* contemporáneos.

Esta constatación está removiendo las bases en las que se articulaban las explicaciones para la transición en general. En primer lugar, obliga a entrar en juego otros factores explicativos. Entre estos nuevos factores creemos que van a jugar un papel central aquellos que tienen que ver con las tensiones de cambio típicamente sociales en detrimento de las ambientales o biológicas, de tipo etológico. Estas explicaciones, de raíz evolucionista o neoevolucionista, han sido importadas a la disciplina desde la paleoantropología física pero probablemente no son demasiado útiles para la complejidad de estos cambios históricos.

Una segunda consecuencia de la crisis de estos modelos es que ha abierto paso franco a otra nueva cuestión historiográfica, la de comprender las dinámicas históricas del final del Paleolítico Medio: hay historia en el Paleolítico Medio y esa historia también es importante para comprender los cambios de la transición del 40.000.

Esta reflexión ha llevado a que el objetivo inmediato principal del proyecto sea el estudio de la secuencia del Paleolítico Medio reciente (niveles B a N de las excavaciones actuales, III a VIII de las excavaciones de Barandiarán). Las primeras referencias muestran que los niveles inferiores acogen ocupaciones intensas en las que se desarrollan comportamientos diferentes a los apreciados en los superiores (en el tipo

da (tresnetan, erabilitako lehengaietan, ehizatutako animalietan, eraturako egituretan...) bestelakoak ere diruditen giro batzuetan.

Bestalde, aurreko kanpainetan induskatutako eremuan aukera izan dugu beste bi depositu arkeologiko, proiektua planteatu genuenean ezezagunak zirenak, erregistratzeko. Bata harpearen barruko sekuentzian dago, sekuentzia zaharrago batean, eta haren gainean gorago aipatu dugun Erdi Paleolito Aroaren hondarrek sedimentuzko paketea egokitu zen. Hainbat arrazoi tarteko –besteak beste, estratigrafiaren konplexutasuna handia delako, hondakin arkeologikoen kopurua urria delako eta induskatutako gainazala hedaturaz txikia delako– multzo hauek artean behar bezala zehaztu gabe daude. Hala eta guztiz ere, oso interesgarriak dira, Bizkaian ezagutzen diren estratigrafia aspaldikoenetan dauden material arkeologikoak baitira. Bigarren deposituak aurreko kanpainetan ia hauteman ere ez genituen Goi Paleolito Aroko materialei egiten die leku. Depositua hau metro koadroan induskatu ahal izan dugu aurtengo kanpainan.

Indusketa Axlorren

1999. urtean aztarnategia babesteko xedean instalaturiko hesiaren kanpoko aldean induskatu genuen, kanpoko bidea zabaltzean hainbat mailatan banatutako material arkeologikoak geratu baitziren agerian. Interbentzio hark agerian utzi zuen aspaldian bideratutako indusketa lanen zabortegia zela, bidearen kotaren azpian *in situ* kontserbatzen ziren mailen gainean egokitua. Makrofaunaren zatikiek, horien artean nagusi zehazten zail ziren anatomia atalak, eta harrizko tresneria oparoak, gehienak lutita eta kuartzoan landutakoak eta gutxi batzuk sukarrietan landuak, osatzen zituzten interbentzio hartan berreskuratutako hondakinak.

2000. eta 2001. urteetan indusketa-lanak babestutako harpearen aldean bideratu ziren, eta 15 metro koadro aztertu ziren Barandiaranek egindako zundaketaren iparraldeko eta mendebaldeko muturretan. Lehenengo kanpaina horiek maila berriek espazioan zuten barreiatadura ebaluatzea eta dokumentatzea zuten xede nagusi (González Urquijo eta Ibáñez, 2002).

Axlorreko aztarnategian induskatutako guneak

2002. urtetik aurrera, berriz, aspaldiko indusketa lanen ebakiak berreskuratuz bideratuta egon dira indusketa kanpainak, estratigrafiaren sekuentzia xehe-tasun handiago batez zehazteko xedean. Azkeneko kanpainetan, berriz, hiru alderdi zehatzago izan ditu xede eta helburu indusketak.

1. Kanpoko sekuentziako maila zaharretan altxatutako azalera emendatzea (geure estratigrafiaren araberrako M eta N mailak, Barandiaranen sekuentziaren araberrako VI.etik VIII. mailara bitartean seguru asko). Horretarako I9-J11 laukiak induskatzen jarraitu dugu, eta bi metro koadro pasatxoko azalera ukitu

de utillaje, en las materias primas utilizadas, en los animales cazados, en las estructuras dispuestas,...) en unas condiciones ambientales que también parecen distintas.

Por otra parte, la extensión de la zona excavada en campañas anteriores ha permitido localizar otros dos depósitos arqueológicos que no se conocían cuando se planteó el proyecto. Uno de ellos está situado en una secuencia interior de la cueva, más antigua, sobre la que sedimentó el paquete de paleolítico medio reciente al que aludimos más arriba. Por distintas circunstancias –entre ellos, la complejidad de la estratigrafía, el limitado número de restos arqueológicos y la escasa superficie excavada- estos conjuntos aún no han sido bien definidos. Con todo, su interés es extraordinario ya que son los materiales arqueológicos situados en estratigrafía más antiguos que se conocen en Bizkaia. El segundo depósito recoge materiales del Paleolítico Superior, apenas intuimos en la campaña anterior y que han podido ser excavados en un metro cuadrado en la campaña de este año.

La excavación en Axlor

En 1999 excavamos en el exterior de la verja instalada para proteger el yacimiento al observar materiales arqueológicos distribuidos en diferentes capas de tierra con coloraciones variadas, aparecidas al ampliar el camino exterior. La intervención reveló que se trataba de la escombrera de la excavación antigua, situada sobre niveles *in situ* que quedan bajo la cota del camino. Los restos recuperados en esta intervención estaban compuestos por fragmentos de macrofauna entre los que dominaban las partes anatómicas no determinables y una abundante industria lítica compuesta en su mayor parte por lutitas y cuarzos, con escasa representación del sílex.

En 2000 y 2001 la excavación se centró en la parte protegida del abrigo, abarcando unos 15 metros cuadrados en torno a los límites N y W del sondeo abierto por Barandiarán. El objetivo de estas primeras campañas se centró en la evaluación y documentación de la dispersión espacial de los niveles más recientes (González Urquijo e Ibáñez, 2002).

Zonas excavadas en el yacimiento de Axlor

Desde el 2002 las campañas de excavación se han centrado en la recuperación de los cortes de la excavación antigua con el objetivo de establecer la secuencia estratigráfica con mayor precisión. En las últimas campañas los objetivos de la excavación se han concentrado en tres aspectos más precisos.

1. En aumentar la extensión despejada en los niveles más antiguos de la secuencia exterior (M y N de nuestra estratigrafía, probablemente VI a VIII de la secuencia de Barandiarán). Para ello, hemos continuado con la excavación de la zona I9-J11, donde se ha alcanzado una extensión de algo más de dos me-



Axlor. N mailako errekontzarako egituren gaineko eta azpiko geruzak.

Axlor. Capa superior e inferior de las estructuras de combustión del nivel N.

dugu N mailan; bertan dentsitate oso handia dago harrizko hondakinetan, fauna hondakinetan eta errekontza jardueraren arrastoetan.

2007ko kanpainen elkarren gainean egokitutako bost taila altxa ditugu irekitako laukietan –sedimentuzko betegarriaren 8 eta 10 cm bitartean–. Dagoeneko deskribatu ditugun antzekoak dira atal honetan N mailak ageri dituen ezaugarriak, buztin fineko sedimentuak osaturiko matrizea eta hondakin antropikoak nagusi: garbitu eta mm bateko sarearekin bahetu ondoren, sedimentu guztia hondakin arkeologikoez osaturik dagoela esan dezakegu. Kareharrizko klasto batzuk agertzen dira, gehienak dezimetroko neurriekin, oso nahasita, errautsaren ehundurarekin, errekontza egiturekin lotu ohi direnak. Ondoko irudi hauetan ikus daitekeen bezala, gutxi gora-behera itxura zirkularra izan ohi dute egitura hauek, dilistatza erarako sekzioan, eta horien gainean erretako buztinez, errautsak dituzten buztinez eta orban karbonotsuez osatutako geruzak bereizten dira.

Harrizko materialak eta fauna hondakinak aurreko kanpainen berreskuratutakoen antzekoak dira oso. Fauna handien artean nagusi dira oreinak, eta harrizko tresnetan kuartzoan, sukarran, lutitan eta kuartzitan landutakoak bereizten dira. Harrizko tresnen homogeneotasuna handia den arren, induskatutako geruza bakoitzeko hondakinen osieran alde nabarmenak daudela esan behar dugu, batzuetan tresna gehienak kuartzitan landuak diren bitartean besteetan sukarran landutakoak baitira nagusi.

N mailako errekontzarako egituren goiko eta azpiko geruzak

2. Goiko mailak hobe definitzeko, aztarnak urri baitziren, planteatutako kontuetako batzuk argitzeko xedean bideratutako jarduerak. 2004an lauki bi induskatu genituen, 18-19 laukiak C mailako betegarrian, eta

tros cuadrados en superficie del nivel N. Este nivel cuenta con una fortísima densidad de restos líticos y faunísticos amén de abundantes evidencias de combustión.

En la campaña 2007 hemos excavado cinco tallas consecutivas en los cuadrantes abiertos –lo que supone entre 8 y 10 cm de relleno sedimentario. En este tramo, las características del nivel N son similares a las ya descritas, con una matriz sedimentaria de arcillas muy finas y un aporte dominado por los restos antrópicos: prácticamente todo el sedimento lavado y cribado con la malla de 1 mm está formado por restos arqueológicos. Aparecen también algunos clastos calizos casi siempre decimétricos, muy alterados, de textura pulverulenta, que suelen estar asociados a las estructuras de combustión. Como puede observarse en las imágenes siguientes, éstas suelen ser acumulaciones de forma más o menos circular, de sección en lentejón, en la que se encuentran superpuestas distintas capas de arcillas rubefactadas, arcillas con cenizas y manchones carbonosos. Los clastos de caliza se encuentran en la base del contorno de estas estructuras.

Los materiales líticos y faunísticos son similares a los recuperados en campañas anteriores, con el dominio del ciervo entre la macrofauna y una industria lítica repartida entre el cuarzo, el sílex, la lutita y la cuarcita. A pesar de la homogeneidad de la industria lítica, debe señalarse la existencia de diferencias marcadas en la composición de los restos en cada una de las capas excavadas ya que en algunas la mayor parte del utillaje se fabrica en cuarzo mientras en otras está dominado por el sílex.

Capa superior e inferior de las estructuras de combustión del nivel N

2. En actuaciones limitadas para caracterizar mejor los niveles superiores en los que el conjunto de evidencias resultaba escaso para resolver alguna de las cuestiones planteadas. En 2004 se excavaron dos cuadrantes

kanpaina honetan metro erdiko zerrenda batera hedatu dugu indusketa G8, H8 eta I8 laukietan, hori bai, soilik B mailak okupatzen duen geruzan. Kasu honetan, aldi honetako okupazioetan ezagututako portaearen nortasunaren ezaugarriak egiaztatu nahi genituen, esate baterako, Quina produkzioaren araberako karrakagailuen kudeaketarekin zerikusia zutenak eta zaldiak eta bobido handiak bezalako belarjale handien aprobetxamenduaren kontzentrazioarekin zerikusia zutenak.

Kanpaina hartan lauki hauek aztertu genituenean, Goi Paleolito Aroko materialak bazeudela –angelu diedroan landutako zizela eta xaflatxo batzuk– ikusi genuen A mailaren gainetik, J.M. Barandiaranen araberrako I. mailaren oinetan, hain zuzen ere antzutzat hartu zen mailan.

2007an 2x 0,5 metroko zerrenda bat altxa dugu F8 eta F9 laukietan, maila honen izaeraren berri izateko xedean. I. mailaren beheko aldean kokatutako pakete batean, gutxi gora-behera 15 cm lodi den pakete batean, fauna handiaren hondakin gutxi batzuekin eta giza hortz batekin batean, antzeko materialak erregistratu genituen. Goi Paleolito Aroko maila hau antzekoa da koloretan, sedimentuen osieran eta ehunduran azpiko pakete antzuen aldean, betegarria buztinezko-limozko sedimentuak osaturik baitago, tartean kareharrizko klasto lau txikiak, depositua harpearen barruko alderantz okertzen dela iradokitzen dutenak. Kanpaina honetan harrizko 400 aztarna baino gehiago berreskuratu ditugu; gehienak sukarran landuta daude, baina badira kuartzoan eta lutitan egindakoak ere. Dozena erditik gora ukitutako tresna dira (angelu diedroan landutako zizela, arraskailu bat eta dortsoan landutako pieza bat) kanpaina honetan -155 eta -175 cm-ko kotan aurkitutakoak. Materialaren eskasak ez du kronologia zehatza eskaintzeko aukerarik ematen, baina une honetan karbono 14 AMS sistemaren bidez aztertuak izaten ari dira laginak, eta horiek bai, datazio zehatza eskaintzeko parada emango digute.

Indusketa I. mailan, F8 eta F9 laukietan

3. Barrunbeto sekuentziaren, sekuentziarik zaharrenaren, azterketa, eta harpearen ahoan egokitutako deposituarekiko harremanaren egiaztapena. Alde batetik, indusketa harpearen barrurantz handitu dugu, I-7-J17 laukietara; hauetan jarraipena dute aurreko kanpainen hautemandako maila arkeologikoei. Bestalde, zundaketa bat egin dugu J14 laukian, barruko eta kanpoko sekuentzien arteko elkargunean. Sekuentziaren multzoak konplexutasun handia iradokitzen du Indusiko karst aldearen bilakaerari begira, eta bereziki aztertzen ari garen harpea aztergai hartuta, deposituaren osieran era askotariko agenteek jardun dutela erakusten dute. Sekuentzia zahar honetan hondakin arkeologikoak gutxi gora-behera jatorrizko lekuetan kontserbatu izanak biziberritzen du hura aztertzei interesa, areago uste dugun bezain aspaldikoa baldin bada.

2007ko kanpainen ezin izan genuen zuzenean alde honetan jardun, P mailako bloke handi bat ebaki-

tes en I8-I9 en la parte del relleno correspondiente al nivel C. En 2005 se extendió la excavación en una banda de medio metro en los cuadros G8, H8 e I8 tan solo en la potencia ocupada por el nivel B. En este caso se trataba de contrastar algunos de los rasgos de acusada personalidad de los comportamientos reconocidos en las ocupaciones de este periodo, como los relacionados con la gestión de las raederas Quina o la concentración en el aprovechamiento de herbívoros grandes como caballos y grandes bóvidos.

En la exploración de estos cuadros en aquella campaña se apreció la posibilidad de la existencia de materiales del Paleolítico Superior –un buril diedro y algunas laminillas– por encima del nivel A, hacia la base del nivel I de J.M. de Barandiarán, que había sido dado por estéril.

En 2007 hemos abierto una banda de 2 x 0,5 m en F8 y F9 para comprobar la naturaleza de este nivel. Se han recuperado materiales similares junto con algunos escasos restos de macrofauna y un diente humano en un paquete de unos 15 cm de potencia situado en la parte inferior del nivel I. Este nivel del Paleolítico Superior no muestra diferencias claras de coloración, composición sedimentaria o textura respecto al paquete estéril que se encuentra a techo ya que el relleno es un sedimento arcilloso-limoso con pequeños clastos calizos planos que sugieren un ligero buzamiento del depósito hacia el interior de la cueva. En esta campaña se han recuperado algo más de 400 restos líticos tallados sobre todo en sílex pero también en cuarzo y lutita con poco más de media docena de retocados (un buril diedro, un raspador y piezas de dorso) entre -155 y -175. La escasez del material no permite una atribución cronológica fiable que podrá obtenerse de una fechación por carbono 14 AMS que está en procesado.

Excavación en el nivel I, cuadros F8 y F9

3. En la exploración de la secuencia interior, más antigua, y su relación con el depósito situado en la boca de la cueva. Por una parte, hemos ampliado la excavación hacia el interior de la cavidad, en los cuadros I17-J17, donde continúan los niveles arqueológicos detectados en la campaña anterior. Por otra parte, hemos abierto un sondeo en el cuadro J14, en el punto de contacto entre las secuencias interior y exterior. El conjunto de la secuencia sugiere una gran complejidad en la evolución del karst de Indusi y, en concreto, en lo referido a la cavidad que estudiamos, muestra que en ella han actuado agentes muy diversos en la conformación del depósito. El hecho de que se conserven restos arqueológicos en posición más o menos primaria en esta secuencia antigua aviva el interés por su estudio dada la antigüedad que le suponemos.

En la campaña de 2007, no ha sido posible trabajar directamente en esta zona por el riesgo que supo-

tik irteteko eta behera etortzeko arriskuan baitzegoen. Horrexegatik, hain zuzen ere, ondoko K14 eta K15 laukietan lan egin genuen blokearen gainean pausatutako sedimentua berreskuratzeke eta gero blokea kontu handiz ateratzeko asmoz. Alde honetako sedimentuek harpearen sabairaino iristen dira, eta aurreneko atalak, D mailatik F mailara bitartekoak, zementuz itxita zeuden. Gainera oso handia da hezurrezko hondakinen dentsitatea, batzuk oso handiak –bisonte eta oreinen matrailezurak eta ornoak–. Horrek guztiak moteldu egin zituen alde honetako indusketa-lanak. Horrexegatik ezin izan ditugu aurreikusitako helburuak bete, artean induskatzeke baitaude sekuentzia honetako (M eta N mailak) beheko mailak, eta horiek induskatu behar baitira blokea atera baino lehen.

Sedimentua pausatu osteko nahasketak, garbitu eta zementuz itxi baitzituzten, ezinezko egiten du eremu honetan D-F ataleko mailetan aldeak nabaritzea. Hondakinen dentsitatea oso handia da fauna handien hondakinetan, baina harrizko hondakinak azartategiaren beste leketan baino urriago dira, agian okupazio eremuaren bazter batean zeudelako, harpearen sabairainoko espazioa txikia baita alde honetan.

Indusketa D-F paketean, K15 laukian

Indusketa kanpainaren hondarrean ginela euri erauntsiak izan ziren, ura kanpoko aldetik sartu zen eta barruko itoginak lanean hasi ziren; ondorioz, lokatz isuri batzuk sortu eta F8 laukiko ebakia partzialki kolapsatu zen. Abenduko azkeneko egunetan interbentzio txiki bat bururatu behar izan genuen behera etorritako sedimentuak biltzeko eta ebakiak garbitzeko xedean.

J. González Urquijo; J.J. Ibáñez Estévez; J. Ríos Garaizar

B.7.2. Baltzola

II. kanpaina
Zuzendaritza: Lydia Zapata Peña
Diru-laguntza emaila: Bizkaiko Foru
Aldundia; EHU, Euskadiko Kutxa,
Eroski

nia un gran bloque del nivel P que sobresalía del corte y que amenazaba con desprenderse. Por ello, la actuación se ha centrado en los cuadros inmediatos -K14 y K15- con el ánimo de recuperar el sedimento situado sobre el bloque para retirar más tarde éste de manera cuidadosa. Los sedimentos de esta zona colmatan hasta el techo de la cueva y los primeros tramos, correspondientes a los niveles D a F, estaban cementados. A ello se añade la extraordinaria densidad de restos óseos, algunos de ellos de grandes proporciones –mandíbulas y vértebras de bisonte y ciervo– que ha ralentizado el trabajo de excavación en la zona. Por esta razón no se han podido cumplir los objetivos previstos ya que faltan por excavar los niveles inferiores de esta secuencia (M y N) antes de abordar la retirada del bloque.

La alteración posdeposicional de la sedimentación, con lavados y cementados, hace que sea imposible distinguir en esta zona las diferencias entre los niveles del tramo D-F. La densidad de restos es muy importante en lo que se refiere a la macrofauna pero sin embargo los restos líticos son más escasos que en otras zonas del yacimiento, quizá por la posición marginal de esta zona respecto a las áreas de ocupación dado el escaso espacio hasta el techo de la cavidad.

Excavación en el paquete D-F, cuadro K15

En los últimos días de la campaña de excavación, las fuertes lluvias provocaron la entrada de agua desde el exterior y la activación de las goteras interiores lo que provocó la formación de pequeñas coladas de barro y el colapso parcial del corte en F8. Estas circunstancias llevaron a una pequeña intervención en los últimos días de diciembre para la recogida de los sedimentos caídos y la limpieza de los cortes.

B.7.2. Baltzola

II Campaña
Dirección: Lydia Zapata Peña
Subvención: Diputación Foral de Bizkaia; UPV, Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, Eroski

The sondages carried out in Baltzola Cave during 2006 and 2007 enabled us to assess the archaeological interest and level of preservation of the site. The 2007 intervention focused exclusively on the upper gallery. The sondage revealed diverse stratigraphic units which include, at least, levels containing ceramic remains, one Magdaleniense context and a possible Middle Palaeolithic one

2006. eta 2007. urteetan zehar zundaketak egin genituen Baltzolako Leizean (Dima) azartategiaren interes arkeologikoa baloratzeko, haren kontserbazio egoera neurtzeko eta kontserbatzen den sekuentzia arkeologikoaren berri izateko xedean. I. Gallaga, M.

Durante los años 2006 y 2007 hemos realizado sondeos en la Cueva de Baltzola (Dima) con el fin de valorar el interés arqueológico y el estado de conservación del yacimiento así como conocer la secuencia arqueológica que conserva. El trabajo de campo de la